

«BARTOLOMÉ ERTZILLA MUSIKA-ESKOLA ETA KONTSERBATORIO PROFESIONALA» ADMINISTRAZIO-ERAKUNDE AUTONOMOAK ESKAINTZEN DITUEN MUSIKA-IRAKASKUNTZEI DAGOZKIEN 2024/2025 IKASTURTERAKO PREZIO PUBLIKOEN ORDENANTZA ALDATZEKO PROPOSAMENA

GAIA: PROPOSAMENA UDALBATZARA ERAMAN AURRETIK JENDAURREKO KONTSULTA-IZAPIDEA

Urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen (aurrerantzean, APAPEL) 133.1 artikulua (lehen tartera) eta 133.4 artikulua (lehen paragrafoa) ezartzen dutenez, honako hauek, hurrenez hurren: «Lege- edo erregelamendu-proiektua edo -aurreproiektua egin aurretik, kontsulta publiko bat bideratuko da ...», eta «Artikulu honetan aurreikusitako kontsulta-, entzunaldi- eta informazio-izapideak alde batera utzi ahal izango dira Estatuko Administrazio Orokorraren, Administrazio Autonomikoaren, toki-administrazioaren edo haien mendeko edo haiei lotutako erakundeen aurrekontuei edo antolaketari buruzko arauen kasuan, edo hala justifikatzen duten interes publikoko arrazoi larriak daudenean». Aipatutako artikulua hauek Konstituzio Auzitegiak, 2018ko maiatzaren 24ko 55/2018 epaiaren bidez, oinarritzko legeriaz jotzen ditu.

Kontsulta-izapide honen xedea ez da proposatutako prezio publikoen aldaketa indarrean jartzeak eragin diezaikeen pertsonen alegazioak jasotzea, APAPELaren 133.1 artikuluan ezarritako gaiei buruzko iritzia eskatzea baino. Hona hemen gai horiek:

- a) Araudiaren xedea.
- b) Eskuhartze honen bitartez konpondu nahi diren arazoak.
- c) Araudi honen onespeneraren beharra eta egokitasuna.
- d) Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzaileak eta ez-erregulatzaileak.

Aipatu dugun bezala, APAPELaren 133. artikulua berak kontsulta-, entzunaldi- eta informazio-izapideak alde batera uzteko aukera ematen du, baldin eta hori justifikatzen duten interes publikoko arrazoi larriak badaude.

Aipatu behar dugu ere behartuta gaudela «Bartolomé Ertzila» Musika-Eskolan eta Kontserbatorio Profesionalean eskainitako musika-irakaskuntzen prezio publikoetan proposatutako aldaketa ezartzera; izan ere, Auzitegi Gorenak (aurrerantzean, AG), uztailaren 20ko 1064/2023 epaiaren bidez (ECLI: TS: 2023:3567) eta jurisprudentzia-doktrina gisa, adierazi du udal batek ezin duela tasa batean, edo, kasu honetan, prezio publiko batean, udal-instalazioak erabiltzeagatik alde kuantitatiborik ezarri, erabiltzaileak udalerrian erroldatuta dauden ala ez kontuan hartuta, erroldaketa ez baita arrazoizko irizpide objektibo bat erabiltzaileen arteko ordainketa-alde hori justifikatzeko.

AGren epai honen edukia aplikatzeak eragin ekonomiko positiboa du egungo ikasleengan eta Musika-Eskolako eta Kontserbatorio Profesionaleko ikasleak izan ahal direnengan, ikasleek ordaindu beharreko prezioen karga zehazteko orduan erroldatze-irizpideari lotutako elementu bereizlea kenduko litzateke, eta, ondorioz, ikasle guztiek prezio publiko bera zerbitzu bera jasotzeagatik ordainduko luketelako.

Hau honela izanda, erakunde autonomoa derrigortuta dago udalerrian errolda ez egiaztatzeagatik gaur egun indarrean dagoen prezio publikoetan ezarritako diru-karga kentzera eta beraz, APAPELaren 133. artikuluan aurreikusitako kontsulta-, entzunaldi- eta informazio-izapideak alde batera utzi ahal izateko interes publikoa justifikatzen duten nahiko arrazoi larriak daudela esan genezake.

Hala ere, gardentasunaren eta administrazio publikoen jardunean nagusi izan behar duen «Gobernu Ona»ren printzipioa betetzearen mesedetan, erakunde autonomoak erabaki du «Bartolomé Ertzila» Musika-Eskola eta Kontserbatorio Profesionalean eskainitako musika-irakaskuntzen prezio publikoak aldatzeko Kontseilu Errektorearen proposamena aurkeztu baino lehen, kontsulta publikoa martxan jartzea, gero dagokion osoko bilkuran onartzeko.

Durangoko Udalaren Udal-Antolaketa, -Jarduera eta -Gobernantzari buruzko Araudiaren 99. artikuluan xedatutakoaren arabera, kontsultarako, entzunaldirako eta jendaurreko informaziorako epea hamabost (15) egun naturalekoa izango da. Egun horiek erakunde autonomoaren web-atarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko dira kontatzen.

«Bartolomé Ertzila» Musika-Eskola eta Kontserbatorio Profesionalean eskainitako musika-irakaskuntzen prezio publikoak aldatzeko proposamenari buruzko kontsulta, entzunaldi eta informazio publikoko nahitaezko izapideak abiarazteari buruzko arauzko gogoetak azaldu ondoren, kontsultaren xedeari dagozkion alderdi nagusiak zehaztuko ditugu.

Araudiaren xedea

«Bartolomé Ertzila» Musika-Eskola eta Kontserbatorio Profesionalean eskaintzen diren musika-irakaskuntzen prezio publikoak egokitzea, AGren uztailaren 20ko 1064/2023 epaia betetzeko (ECLI: ES: TS: 2023:3567). Epai horretan diskriminatzailetzat jotzen da

tasa edo prezio publiko batean alde kuantitatiboak ezartzea udal-instalazioak erabiltzeagatik, kontuan hartuta erabiltzaileak udalerrian erroldatuta dauden ala ez, erroldatzea ez baita arrazoizko irizpide objektibo bat erabiltzaileen artean zerbitzu berberagatik prezio desberdinaren aplikazioa justifikatzeko.

[Eskuhartze honen bitartez konpondu nahi diren arazoak](#)

Proposatutako aldaketarekin, tokiko zerbitzu publikoetarako herritarren sarbidean berdintasun-printzipioa betetzen dela bermatuko litzateke, egoera berdinetan emandako zerbitzu beraren aurrean prezio publiko beraren irizpide orokorra aplikatzen delako, Toki-Korporazioen Zerbitzuen 1955eko ekainaren 17ko Erregelamenduaren 150.1 artikuluan eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 4.2.d) artikuluan xedatutakoa betez.

[Araudi honen onespeneren beharra eta egokitasuna](#)

Prezio publikoak aldatzeko proposamena 2024/2025 ikasturterako aurreikusten denez, aldaketa ekainean onartu behar da, egokitutako prezioak aipatutako ikasturtea hasi baino lehen indarrean sartu ahal izateko.

[Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzailerak eta ez-erregulatzailerak](#)

Ez dago zerbitzu publiko bera emateagatik prezio publiko desberdin bat ezarri ahal izateko babes ematen duen legeren bat, erroldatuta egotea ala ez irizpidetzat hartuz, batez ere, AGk aipatutako irizpidea diskriminatzailatzat jo badu.

Durango, 2024ko maiatzaren 9a

Administrazio-Erakunde Autonomoen Gerentea

O.E. «Bartolomé Ertzilia Musika-Eskola eta Kontserbatorio Profesionala» AEaren Presidentea

Durango, 16 de mayo de 2024

Elektronikoki izenpeturiko agiria
Documento firmado electrónicamente